

TXOSTENA: EZOHIKO EGOERA ARABAKO ERRIOXAN ETA ARABAKO TXAKOLINEAN MILDIUAREN ONDORIOZ

Mildiu onddoa aski ezaguna da eskualdeko ardogile guztientzat. 2025eko kanpainan eragin aipagarria eduki du laborantzan, eta horrek ondorioak sortuko ditu aurtengo uztan.

Aurtengo apirilean eta maiatzean izan diren tenperaturen eta eurien eraginez erabat zabaldu da mahatsondoei eragiten dien gaixotasun kriptogamiko hau.

Ohi baino euri gehiago egin du eta tenperaturak batez bestekotik askoz gorago ibili dira, eta ondorioz giroa ezin hobea izan da patologia honetarako. Horregatik, eskualdean denentzat ezaguna izan arren, aurre egiteko eta kontrolatzeko lanak areagotu behar dira, aurten sortzen ari den eragina azken urteotakoa baino askoz handiagoa baita.

Gaixotasunaren zabalkuntza bultzatu duten inguruabarrak apirilean eta maiatzean gertatu dira, hain zuzen ere mahatsondoen egoera fenologikoa arriskutsua eta erasoen aurrean kaltebera denean: loraldian eta fruitua hartzen ari denean. Aldi hori funtsezkoa eta erabakigarria da ekoizpenerako, orduan gertatzen baita “lore galtzea”.

Fruituen garapena eguraldi inguruabar kaltegarriek eragozten dute: esaterako, euri jasek kalte egiten dute loraldian, polenak loreak ernaltzea galarazten baitute; gehiegizko beroak eta hezetasunak sortutako anomalia termikoek kalte egiten diote fruktifikazioari. Gainera, mildiu infekzio goiztiarraren ondorioz ernaltze maila eskasa izan daiteke eta hainbat loretxo gal daitezke. Bada, horiek guztiak batuz gero, uzta asko urritu daiteke.

Maiatzeko egun batzuetan batez besteko tenperatura 14-15 °C-tik gorakoa izan da, eta aldi batzuetan 20 °C-tik gora ere ibili da. Gainera, euri asko bota du (egun batzuetan 15 mm), eta horrek guztiak onddoaren lehen mailako kutsadura bultzatu du.

Beste alde batetik, landaretza asko hazi da 18-22 °C-ko tenperatura altuen eta hezetasun erlatibo altuaren eraginez (hezetasuna, gainera, behe-laino iraunkorrek

areagotu dute), eta ondorioz ondoaren bigarren mailako kutsadura hedatu da eskualde osoan barna.

Maiatzaren erdirako zenbait fokuren abisuak emanak ziren, gaixotasunari garatzen laguntzen dioten inguruabarrak zeudelako: tenperatura eta hezetasun erlatibo altuko egunak. Kasu batzuetan ezin izan zen eman tratamendurik, euri jasa gogorren ondorioz zaila edo ezinezkoa zelako lurzatieta makinekin sartzea. Horregatik, ia ezinezkoa izan zen prebentzio tratamenduak aplikatzea mahasti guztietan, eta lur arinetan edo drainatze oneko lurretan baino ez ziren eman.

Maiatzeko azken asteko beroaren eta egun haietan bota zuen euriaren ondorioz ekaineko lehen asterako agerikoa zen gaixotasuna orrietatik mordoetara zabaldua zegoela eta kalteak handiak zirela, toki batzuetan gaixotasuna mordo gainetara heltzen baitzen.

Horren aurrean, batera erabili dira produktu fungizida sistemikoak eta ukipen produktu sarkorrak, txandaka aplikatuta, eta horrela hainbat lekutan gaixotasunaren hedapena mugatzea lortu da. Hala ere, mildiuko beste jatorri deitura batzuk ere kolpatu ditu (esaterako, kalte handiak jasan dituzte Ruedak, Montilla-Morilesek eta Jerezek) eta ondorioz materia aktibo batzuen hornidura eten da eta gaixotasuna kontrolatzeko lanak are gehiago zaildu dira.

Aipatu behar da gaixotasunaren eragina ez dela izan homoginoa Arabako Errioxa osoan. Are gehiago, kasu batzuetan, elkarren ondoan dauden lurzatieta eragina desberdina izan da: lurzati batean kalte handiak eta haren ondoko lurzatieta kalte nahiko arinak. Horren ildotik, ustiategi bakoitzean egin den lana alde batera utzita, oro har, mildiuko kalte gutxiago egin du lur garaietako mahastietan, ondo haizatutako lurretako mahastietan eta lur arineko mahastietan. Halaber, gaixotasunak kalte handiagoa egin du sakonunetako andueta eta Ebro ibairen ertzetatik hurbilen daudenetan, toki horietan haizeak ez baititu leuntzen hezetasun erlatiboak ageriago dauden lekueta beste.

Hori dela eta, kalkuluen arabera Arabako Errioxako ia ustiategi guztietara zabaldu da gaixotasuna, baina gaixotutako mordoan portzentajea asko aldatzen da lurzatieta artean: batzuetan eragina oso txikia izan da, % 10 baino ez, eta beste batzuetan, berriz, oso handia, % 70-80 ingurukoa; sail askotan mordoan % 40-60 gaixotu dira. Leku batzuetan, mahastietan beste lan batzuk (aihenak moztu, hostoak kendu eta kimaketa) egin behar direla aprobetxatu da eta ukitutako mordoak edo ardotarako erabili ezin izango diren mordoak dauden landareak saneatzen ari dira.

Beste alde batetik, modu ekologikoan laboratzen diren mahastietan (prebentzioan oinarritutako tratamenduak eta sendabideak aplikatzeko mugak) mildiuko eragina askoz handiagoa da. Horrelakoetan, mahastizain batzuek tratamenduak gehitzea erabaki dute, kalteak murrizteko eta uzta ahalik gehien babesteko.

Ekainaren hasieran, eguraldiak tratamendu fitosanitarioak orokortzeko aukera eman zuen. Leku batzuetan ordurako 4 tratamendu emanak ziren, eta hil amaierarako mahasti askotan 8 emanak zituzten. Horregatik, mildiaren erasanak eragin ekonomiko handia izango du sektore honetan aurtengo kanpainan, eta horrek are gehiago larrituko du Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzako sektorearen egoera, lehendik ere nahiko zaila zena.

Kanpaina honetako ifrentzuan Arabako Txakolinaren mahastiak daude. Izan ere, horien egoera ez da hain larria; are gehiago, nolabaiteko baikortasuna ere badago: batetik, eguraldi inguruabarrak ez dira izan horren mesedegarriak gaixotasunarentzat; bestetik, urtero mildiua askoz ohikoagoa denez gero, prebentzio neurriak hartu ohi dira, eta aurten sekulako eraginkorrenak izan dira. Beraz, hurrengo hiletan zer gertatuko den ez badakigu ere, uste dugu eskualdeko uzta ona izango dela eta mildiuk ez duela eragin handirik izango.

Guardia, 2025eko uztailaren 8a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA**